

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

ZER EGINGO DUZUE ZUEN PRODUKTUA EDO ZERBITZUA BEZEROARENGANA HELARAZTEKO?

Modu asko erabiliko ditugu bezeroari gure zerbitzua helarazteko. Baina beti **modu zuzen batean, hau da, bitartekaririk gabe harremana zuzena izan dadin.**

Alde batetik, gure produktuaren **publizitatea** egingo dugu hainbat modutan:

- Publizitatea izango da gure kanal garrantzitsuenetariko bat, honen bidez bereziki ezagutuko du jendeak gure aplikazioa. Era ezberdinetan helaraziko dugu gure aplikazioa: udal bulegoetan, hirugarren adineko zentroetan, zaharren egoitzetan, ikastetxeetako, gaztelekuetako, polikiroldegietako eta liburutegietako **informazio-paneletan**... Gainera, hasieran gehienbat, **aurkezpenak** egingo ditugu hezkuntza zentroetan, unibertsitatean, zaharren egoitzetan, liburutegietan, udalean... [Helpapp](#) ezagutzera emateko helburuarekin, aplikazioa aurkeztuz, adibideak eta egoerak emanez...
- Gainera, **Instagram kontua sortuko** dugu gure zerbitzua sustatzeko. Horren bidez, jendea gutxinaka-gutxinaka gure aplikazioa ezagutzen hasiko da. Instagram kontu erakargarri bat egingo dugu jendearen interesa pizteko. Honen harira, Instagramen hainbat **estrategia** erabiliko ditugu; esaterako, **zozketa** ezberdinak burutuko ditugu gure aplikazioaren atal ordainduak oparitzeko, "influencerrak" **gure zerbitzua iragarriko** dute guk eskaintzak eskaintzearen truke...
- Bestetik, gure proiektua Interneten bidez izango da beraz beste kanal garrantzitsuenetariko bat Internet izango da, izan ere, **webgune** baten bitartez gure bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal egokiena. Online aplikazio bat da Interneten erabilera errazteko ahalbidetuko duena eta beraz, gure kanal garrantzitsuena Internet izango da.
- **Beste erabiltzaileekin ezagutza komunean jartzeko txata:** Horrez gain aplikazioa erabiltzen dagoen norbaitekin hitz egiteko aukera egongo da, txat baten bitartez. Bertan, erabiltzaile bakoitzak, bere ezagutza komunean jarri dezake beste erabiltzaile batekin eta horrela besteengandik ikasi.
- **Laguntza eskainiko duen txata:** Behar izanez gero, laguntza eskainiko duen txat bat ere egongo da, 24 orduz erabilgarri, bakoitzak dituen zailtasunak argitzen saiatuko dena. Lan orduetan, goizeko 8etatik arratsaldeko 8ak arte, pertsona bat egongo da bezeroak dituen zalantzak argitzeko. Ordu horietatik kanpo zalantzarik badago, txata erantzungailu automatiko batek erantzungo du, ahal den neurrian bezeroek dituzten zalantzak argitzeko.

(Azken bi puntu hauek **modu erraz batean erabil daitezke gure web gunean**).

Instagram



LABURBILDUZ...

KANALA: INTERNET

- **PUBLIZITATEA:** beste aplikazioetan ateratzea publizitatuta, leku ezberdinetan hitzaldiak emanez...
- **INSTAGRAM:** informatzeko kontua sortu, zozketak egin, jende ezagunak aplikazioa iragartzea...
- **WEBGUNEA:** edozein aplikazio bezala, webgunea izango dugu Interneten bidez sartu ahal izateko eta deskargatzeko beharra ez edukitzeko

KANALEN artean, honakoak bereiz ditzakegu:

- **Komunikazio-kanalak:** Instagram, gure webgunea, Whatsapp, informazio-panelak, hizketaldiak...
- **Salmenta-kanalak:** Onlinen bidez egin
- **Banaketa kanalak:** ez daude, ez dugulako produktua banatzen, online egingo dugulako.